

USTEA, MAIZ USTEL.—Toribio Etxebarria zenari entzuna nion, kazetari kastak ezer jakin ez eta denetarik idatzi behar zuela. Nere buruari galdezka nago *Egin*-en idazten duen «Erlategia» ere gisa hortakoa ez ote den. Azaroaren 21eko *Egin*-en 27. orrialdean Barakaldoko kultur aste hartan eman nuen hitzaldiaz idatzi zuenak holako kezka sortu bai dit. Baina, bijoaz zuzenketazko oharrok.

Hitzaldiaren ildoak ondo jaso zuen. Hala behar ere, hizlariaren aurrekaldean magnetofona jarriaz gero. Behar bada, horri esker egun hartako kazetari soldata irabaziko zuen. Nork daki. Nik ordea, Barakaldoko euskaldun berriei euskaraz mintzatzea merezi zuela eta eskerrikaskoren ordainez bete nuen nire egitekoa. Baina, horregatik ere ez zait axolarik, zeren erraz konpreniaraztekoa bait da gure gizarteko kulturgintza ahuelezia. Baina, hori bai, eskatu zidaten gaia bete nuelarik «zenbait puntutan aspergarria gertatu» zela esatea ez dut ontzat hartzen. Hori, kazetariaren aburua baizik ezta. Niri, antolatzaileek euskal literaturaren historia adieraztea eskatu zidaten, hortaz ezer ez edo ezer guti zekien jendearentzat.

«Erlategia» delakoari, ikusten denez, erabilitako gaiak hango entzulegoak baino gehiago zekienez, ulertzekoa da bere abaraskak haina ezti nik ez ematea.

Baina (eta berriz ere bainak ari natzaio), usteak uste, dirudienek euskal literaturaz ez du berak uste duen hainako jakituririk. Hara eroan nituen I. Sarasola eta E. Zabalaren liburuetan oinarritu nintzela pentsatzen badu, ezetz esango diot. Ez, ez dio igarri. Nire hitzaldi hura neronek idatzitako *Literaturaren inguruan* liburuaren ildotik joan zen gehienbat. Horregatik ez nuen ezer irakurri beharrik. Historia bera kronologikoki begiratzeko Zabalarenaren aurkibidea erabili nuen. Hau da, haria jarraitzeko gidatzaile, aparteko giori egin beharrean. Ez bai zitzaidan egokia iduritu nere liburua bera jendaurrera agertzea. Baina, hara apaltasunak batzutan zer dakarren. Hitzaldiaren gidoia egiteko premiarik gabe, era berean bi libururen berri agertzen nuen euskal

literaturaz, bata euskaraz eta bestea gazteleraz. Pundu hori izan zen, nere hitzaldiari buruz, magnetofonoak eman ez zion bakarra, nolabaiteko kritika egin nahi hori. Ustea, maiz ustel. Bere burua informatutzat duena konturatu behar zen literaturaren aldi eta mugimenduak adieraztean nere kabuz nabilela eta ez antzarraren ahotik.

Hargatik, eta erabiltzen duen izenagatik behinik-pehin, eztitsuagoa izan zitekean «Erlategia». Ala T. Etxebarriaren eritzizko «kazetari» zakuan sartzekoa ote?

*J. San Martín*